

Enpresen Administrazioko graduko Oñatiko eta Bidasoako 8 ikaslek europar programa batetan parte hartu dute Austrian.

2014/04/03

Sei unibertsitate bost herrialde desberdinetakoak parte hartzen dugu ' Bridging de Gap ' programa intentsibo honetan:

- Artesis Hogeschool Antwerpen (Belgium)
- Central Ostrobothnia University of Applied Sciences (Finland)
- FH-Joanneum (Austria)
- HEPH-Condorcet (Belgium)
- Mondragon Unibertsitatea- Business Faculty (Basque Country – Spain)
- Hacettepe University (Turkey)

Artesis Hogeschool Antwerpen izan zen programaren koodinatzailea aurreko urtean eta aurtengo edizioan Austriako FH-Joanneum unibertsitatea izan da.

IP(Intensive Program) honen helburua diziplina arteko espazioak sustatzea litzateke Enpresen Administrazioko ikasle eta Informazio Teknologien alderdiko ikasleen artean helburu amankomunak identifikatuz. Beti entzun izan dugu bi perfil hauek ez direla oso ondo ulertzen enpresetan. Horregatik programaren helburu nagusia perfil ezberdinak batera lan egitea izan da, beti ere beraien artean konplementatuz.

Mota honetako programak esperientzia aberasgarria suposatzen dute alde batetik maila profesionalean, baina bestetik eta batipat maila pertsonalean.

